ASKOTARIKO ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITU ETA BAZKIDEEK AUKERA ZABALA DAUKATE

Askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu Denbora Bankuak. Gainera, trukea ez da zertan bikoteka egin behar eta, ondorioz, bazkideek aukeran jakintza mota ugari dauzkate. Umeak eta adineko pertsonak zaintzea; ilea apaintzea; odontologia; brikolajea; mintzapraktika (euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez); joste lanak; sukaldaritza; aholkularitza eta laguntza etxeko arlo desberdinetan (garbiketa, elikadura, ekonomia); oporretan etxea zaintzea; furgoneta eta auto zerbitzua eta informatika, besteren artean.

Esaterako, sukaldaritzaren arloan oso ohikoa da etxean prestatutako postreak eskatzea. Askok eskatzen dituzte. Beste batzuek, berriz, jaki bat nola prestatzen den erakusteko gai den norbait nahi izaten dute. Adibidez, arrain zopa nola egiten den erakutsiko dien norbait. Noski, truke horietan sortzen diren diru gastuak eskatzaileak ordaindu behar izaten ditu beti.

«Adibidez, Bergaran badugu kide bat euskaraz ez dakiena eta, batzuetan, larri ibiltzen da haurrarekin eskolako lanak egiteko. Horrelakoetan dituen zalantzak korreo elektronikoz bidaltzen ditu eta Auzopoliseko norbaitek laguntzen dio. Teknologiak eskaintzen digun laguntza polita da», kontatu du Maite Fernandezek. Beste mila adibide kontatzeko moduan dira. Bada lanera goiz joan behar duen eta haurra ikastolara eraman ezin duen bikote bat. Bada, egunero, Auzopoliseko beste kide baten etxera eramaten dute haurra. Bertan, gosaria ematen diote eta eskolara eramaten dute. Beste bazkide batek ospitalera joan behar eta kezka handia zuen, ez zuelako gaztelera menperatzen. Bada, Auzopoliseko beste kide batek lagundu eta itzultzaile lana egin zuen.

Berdintasuneko harremana da Auzopolisek eskaintzen duena, zerbait zerbaiten truke. «Hartara, inork ez dauka norbaiti mesede bat zor dionaren sentsazioa». Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara, 695 777 986 telefonoan topa daitezke Auzopoliseko koordinatzaileak.

Auzopolisen aurkezpeneko kartela.

Antton Izagirre - irakaslea

Etika labelak

Azken gertakarien harira, Euskal Herriko politikagintzan giza arauen zuzentasuna erregulatzen duten jainko berriak bilakatu nahi izan dute PSOEk eta PNVk. Ongiaren eta gaizkiaren, etika eta moralaren, ikasgaiak banatzeari ekin diote. Eta politikan jarduteko ekintzen zuzentasuna juzgatzeaz gain, adierazpen eta pentsamenduaren egokitasuna saritu edota zigortzeko boterea ere bere gain hartu nahi izan dute, "nirekin ala nire aurka" leloa praktikan jarriz mozio etikoak deiturikoekin. Dinamika horiek ezkutuko helburu bikoitza dute. Alde batetik, ezker abertzalea lehia politikotik baztertzea eta gainerako alderdi politikoak, orain arteko ohe-kideak barne, mututzea. Bestetik, politikagintzaren ardatz gisa beren buruak agertzea paktu berri baterako entsegua eginez. Halere, etika politikoaren sinesgarritasuna pentsamendu eta jarreren barne koherentzia estuan datza.

Nola demonio uler liteke PSOEren logika etikoa goizean Arrasaten, Hernanin edo Bergaran mehatxuak, erasoak eta heriotzak salatzeko eskatzen ari bada eta arratsaldean gazteen atxiloketak, tortura eta jokabide horien aldeko praktika bultzatzen badu? Galde diezaietela etikaz trantze estu horretatik pasagatik bizirik irten direnei edo bere zainak lehertu eta odolustuta hiltzea desio izan dutenei. Galde diezaietela beren senideei, PSOEren estatu polizialaren ondorioak jasan dituen edonori.

Nola kristo uler liteke PNVren bozeramaile etikoek goizean Candido Saseta militar euskaltzalearen gorpuzkinen aurrean haren izaera abertzalea goraipatzea eta arratsaldez, haren idealen jarraitzaile eta sustatzaile diren Herri Batasuneko sortzaile eta bultzatzaileei PNV berak bere indar armatuak bidaltzea, hitzaren arrazoia besterik ez dutenen aurka tiroak eta kolpeak erabiliz? Galde diezaietela etikaz, Durangon, Errenterian, Donostian, kolpatuak eta zaurituak izan direnei. Zer nolako eskizofrenia politikoa sor lezake bere jarraitzaile eta afiliatuen artean goizean ardiz eta arratsaldean otsoz janzten denak? Lehenago demokrazia, abertzaletasuna, herria, justizia... kontzeptuak hustu zituztenek, orain gauza bera egin nahi dute etika kontzeptua manipulatuz. •